

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak mugikorretarako aplikazio bat aurkeztu du, herritarrek edozein motatako gorabeheren berri emateko aukera ematen duena

Komunikatzeko tresna Internet bidez ere erabil daiteke

Martes, 17 de enero de 2012

Nafarroako Gobernuak komunikatzeko tresna bat sortu du, hiritarrek Foru Gobernuari arazozen eta akatsen berri eman edo baliabide publikoak hobetzeko iradokizunak proposatzeko aukera ematen duena.

"Nafarroa osoko Gorabeherak" izeneko aplikazioa asteazken honetan aurkeztuko du Iruñean Guzmán Garmendia Partaidetza eta Teknologia Berrien zuzendari nagusiak, 19:00etan, NAPIko ekitaldien aretoan (Navarrería kalea 39, Iruña).

Horrez gain, Roberto Jiménez lehen presidenteorde eta Lehendakaritzako, Administrazio

Publikoetako eta Barneko kontseilariak Nafarroa osoko Gorabeherak aplikazioaren berri emango du Madrilgo HUB negozio-zentroan (Gobernador kalea, 26) egingo den beste aurkezpen publiko batean, ostegunean, urtarrilaren 19an, 20:00etan. Aurkezpena kazetari espezializatuentzat, sektoreko enpresarientzat eta teknologia berrien erabiltzaileentzat izango da, besteak beste.

Bi aurkezpenak Nafarroako Gobernu Irekiaren [Twitter](#) kontuaren bidez zabalduko dira #oGob etiketa (edo hashtag-a) erabiliz. Horrez gain, Iruñeako aurkezpena zuzenean eskainiko



dute www.navarratv.com web-orriaren bidez.

"Nafarroa osoko Gorabeherak" aplikazioa

"Nafarroa osoko Gorabeherak" aplikazioa doan deskarga daiteke, eta iPhone, Blackberry eta Android sistema operatiboa erabiltzen duten telefono mugikorretarako garatu dute. www.ogob.navarra.es web-orriaren bidez ere sar daiteke bertara.

Euskaraz eta gaztelaniaz dagoen aplikazioari esker, herritarrek edozein motatako arazoen eta akatsen berri eman edo baliabide publikoak hobetzeko iradokizuna egin dezakete. Argazkiak ere txertatu daitezke, eta sistemak berak gorabeherak geolokalizatzen ditu, hau da, mapa batean kokatzen ditu zehazki non dauden jakiteko.

Inf012Navarra bulegoetako langileek hiritarrek aurkeztutako gorabehera guztiak aztertu eta horiek konpontzeko eskumena duen administraziora bidaltzen dituzte.

Gorabeheren hamabi kategoria ezarri dira (garbiketa, bide publikoa, seinaleak, pintadak, altzariak, lorategiak, argiak, garraioa, herritarrentzako arreta, komun publikoak, establezimendu pribatuak, errepideak), eta tresnak jakinarazitako gorabehera guztien historia kontsultatzeko eta hainbat gizarte-saretan erakusteko aukera ematen du.

[Zerbitzu](#) berria herritarren eta Foru Administrazioaren arteko komunikatzeko dauden beste bitarteko bat da: herritarren arretarako Inf012Navarra bulegoak, 012 telefonoa, gobierno@navarra.es helbide elektronikoa eta Nafarroako Gobernu Irekiaren [Twitter](#), [Facebook](#), [Tuenti](#) eta [Google+](#)-eko profilak.